

Atzoko eta gaurko zentsura hizpide Durangoko Azokan

Hainbat hitzaldi, mahai-inguru eta liburu aurkezpen antolatu ditu Gerediaga elkarteak Landakon abenduaren 7tik 11ra bitartean

IRUNE BERRO-DURANGO.- Euskal Liburu eta Diskoen 40. Durangoko Azoka da aurtengoa. Baina gerta zitekeen Azokarik ez izatea 1975az geroztik. Izan ere, urte hartan, Espainiako Gobernu Zibila Gerediaga Elkarteak antolatutako kultur ekimena debekatzekotan izan zen. Zentsuraren atzapar zorrotzei ihes egitea lortu zuten azkenik antolatzaileek, baina jakin badakite zentsura ez dela antigoaleko kontua. Egun ere ematen dela. Hori dela eta, atzoko eta gaurko zentsura izango du gai nagusi aurtengo Azokaren egitarauak, abenduaren 7tik 11ra.

Ohikoa denez, halaber, nobedade andana aurkeztuko ditu bost egunetan; 477 orotara. Horietatik 361 liburuak dira; 34, diskoak; 43, DVDak; 49, aldizkaria; eta 10, bestealkon produktuak. Argitaletxe, disketxe eta era guztietako elkarte eta erakundeek salmahaietan izango dira salgai. Aurten, gainera, iaz baino 12 erakusmahai gehiago egongo dira Azokan: 309. Jon Irazabal Durangoko Azokaren zuzendariak esan duenez, mahaia jartzeko eskaera guztiei erantzuten ahalegindu dira, eta lortu dute. «Hala eskatu duen guztiak izango du mahaia Azokan». Datozen urteei begira, alabaina, zail ikusten du Irazabalek. «Landako eraikina handia da, baina urtetik urtera izugarri handitzen da mahaia jartzeko eskaera kopurua. Espazio arazoak izan ditzakegu hemendik urte batzuetara». Azaldu duenez, iazkoa baino aurrekontu txikiagoa du aurtengo Azokak. Aurten, babesle bat gutxiago du Azokak, eta ondorioz, 400.000 euro baino ez ditu lortu Gerediagak 490.000 euroko aurrekontua izan zuen joan den urtean. Horregatik, baina, sarrerarik ez dutela kobratuko jakinarazi du Irazabalek. «Aukera hori erabat baztertu genuen iaz». Bestalde, irakaskuntza zentroeiei eta sektoreko profesionalen zuzenduriko lehen eguna berreskuratuko du Azokak. Baina beste modu batera egingo dute aurten. Azoka jende guztientzat zabalduko dute, ikasle, irakasle, idazle, editore zein kaleko edozeinentzat. Arratsaldean, baina, profesionalen zuzenduriko jabego intelektualari buruzko mahai-ingurua antolatu dute.

Argizaiola, Gotzon Garateri

Francoren garaiko zentsurari buruzko hitzekin zabalduko du Azoka Joan Mari Torrealdeai Jakin aldizkariaren zuzendariak abenduaren 7an: Zentsura frankistaren irakurketa gaurkotua egingo du. Halaber, zentsura gai hartuta, beste lau hitzaldi izango dira, Azokak irauten duen egunetan. Xabier Paia bertsolariak Zentsura bertsolaritza edo kristalezko eskailera berbaldia eskainiko du, eta Angel Mari Unzueta Bizkaiko Elizbarrutiko bikarioak Eliza eta zentsura. Fermin Muguruza musikariak Hegoak ebaki gabeko kantua izeneko hitzaldia eskainiko du. Joxe Felix Azurmendi eta Carmelo Otaegi kazetariak, bestalde, Komunikabideak eta zentsuraren begia gaiaren inguruko solasaldia emango dute.

Aurten Gotzon Garate hizkuntzalari eta idazleak (Elgoibar, Gipuzkoa, 1934) jasoko du Argizaiola saria. Jesuslagundiaren Durangoko ikastetxean ikasi zuen Garatek, eta, dioenez, hantxe hartu zuen euskaldun kontzientzia, hortik aurrera izan zuen euskararen aldeko jarrera aktiboa. Euskararen

gainean makina bat ikerketa egin ditu Garatek. Horretaz gainera, bidaiari nekazina da. AEBetan (New Yorken) eta Indian egona da, eta liburu banatan bildu ditu bata zein bestean bizitakoak. Besteak beste, zenbait ipuin eta nobela poliziako ere eman ditu argitara.

EGITARUA

Abenduak 7

16:00: 'Liburutegiak eta jabego intelektuala' mahai ingurua. Parte-hartzaileak: Patricia Riera, Patxi Presa, Jorge Jimenez, Xabier Mendiguren Elizegi eta Arantza Arzamendi.

19:00: Joan Mari Torrealdairen hitzaldia: 'Zentsura frankistaren irakurketa gaurkotua'.

Abenduak 8

11:00: Patxi Zabaletaren 'Eneko Haritzaren hilobia' liburuaren aurkezpena.

12:30: Xabier Paiaren hitzaldia: 'Zentsura bertsolaritzan edo kristalezko eskailera'.

12:30: Josu Naveranen 'Hitzen koba. Euskeraren jatorria eta eraiketa' liburuaren aurkezpena.

18:30: Angel Mari Unzuetaeren hitzaldia: 'Eleiza eta zentsura'.

21:00: Gotzon Garatei Argizaiola saria emateko ekitaldia.

Abenduak 9

12:30: Fermin Muguruzaren hitzaldia: 'Hegoak ebaki gabeko kantua'.

18:00: Joseba Zulaikaren hitzaldia: 'Renoko liburutegia, herri baten oroitza'.

19:00: Jimeno Jurioren omenezko ekitaldia.

Abenduak 10

11:30: Nerea Mujikaren 'El pasado reciente de Durango y su comarca 1960-1991' liburuaren aurkezpena.

12:30: 'Komunikabideak eta zentsuraren begia' solasaldia. Parte-hartzaileak: Joxe Felix Azurmendi eta Carmelo Otaegi.

Abenduak 11

11:30: Andolin Eguzkitzaren eta Maitena Etxebarriaren 'Hizkuntzalaritza orokorra: arazoak eta ikuspegiak' liburuaren aurkezpena.

12:30: Txema Auzmendiren hitzaldia: 'Euskera, Jesulagundia eta Jesulagunak'. *Ekitaldi guztiak Landakon izango dira